

BIZIKIDETZA LANTZEN

HAUSNARKETAREN
PROZESUAREN EMAITZAK



ETORKIZUNA
ERAIKIZ



AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Txosten exekutiboa	9
2.1. I. Sustapen esparrua - Udalean ordezkariak duten sentsibilitate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea	11
2.2. II . sustapen esparrua - Bizikidetza anitzeko foroak eta esperientzia sustatzea	17
2.3. III. sustapen esparrua - Giza eskubideen gizarte hezkuntzan ekimenak sustatzea	22
2.4. IV. sustapen esparrua - Udaletatik biktimen laguntza indartzea	24
2.5. V. sustapen esparrua - Udal eremuan memoriaren politika garatzea	26
2.6. VI. sustapen esparrua - Gizarteratze prozesuetan laguntzea	28
2.7. VII. Bestelako lan esparruak	30



1

SARRERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2016. urtearen hasieran jarri zuen abian Bizikidetza Lantzen foru programa, azken hamar urteetan lurralde historikoan bakearen eta bizikidetzaren inguruko politika publikoen hausnarketa egin ostean (2015eko azaroaren 15ean udalekin lankidetzan aritzeko jardunaldia egin zen). Bi urte geroago, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Bizikidetza Lantzen programaren balorazioa egin nahi izan du, programa egungo eta etorkizuneko behar eta aukerei egokitzeko. Helburu hori betetze aldera, hausnarketa prozesu bat jarri zuen abian 2017ko azaroan. Hemen jasotzen dena prozesu horren emaitza da.

Bizikidetza Lantzen programak bost konpromisotarako bost printzipio jaso zituen: giza eskubideak, biktimak, memoria, normalizazioa eta gizarteratzea, eta bost printzipio horien baitan helburu nagusi bat, alegia, bakea betiko eta atzera bueltarik gabe sendotzen laguntzea, gizarte bizikidetza bideratzen laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea, lurraldeko gizartean giza eskubideen ezagutza eta begirune kultura sustatuz. Helburu nagusi horrek lehentasunezko sei sustapen eremu garatzen ditu,

eta horiek izan dira hausnarketa prozesu honetan aztertu direnak.

Helburu horiek lortze aldera, udalekiko lankidetzak programak lehentasunezko sei sustapen eremu ezartzen ditu: (1) udalean ordezkariak duten sentsibilitate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea; (2) bizikidetza anitzeko foroak eta esperientziak sustatzea; (3) giza eskubideen gizarte hezkuntzan ekimenak sustatzea; (4) udaletatik biktimen laguntza indartzea; (5) udal eremuan memoriaren politika garatzea; eta (6) gizarteratze prozesuetan laguntzea.

Programaren egokitasuna aztertze aldera, programa zuzenean sustatzen ari diren eragileen iritzi, bizipen eta ekarpenak hartu dira kontuan. Horrek esan nahi du bereziki lehenengo bi sustapen eremuen azterketa egin dela: udalean ordezkariak duten sentsibilitate desberdinen arteko elkarrizketa prozesuetan dabilzan pertsonak, eta bizikidetza anitzeko foroetan dabilzanak. Azterketa horretarako bi lanabes erabili dira bi eremuetan: lehenengo, galdetegi bat erantzuteko eskatu zaie espazio bakoitzeko parte hartzaileei; eta ondoren, lan jardunaldi batean parte hartzeko.

Parte-hartzeko bi bide horien bitartez Bizikidetza Lantzen programaren "sei sustapen eremuen" garapen maila aztertzea helburu izan bada ere, programan jasotako lehenengo bi sustapen eremu hauek garapen sakonagoa eta landuagoa izango dute.

Udalan ordezkariak duten sentsibiltate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea (I. sustapen eremua) helburu duten elkarrizketa espazioetan parte hartzen duten 127 laguni bidali zitzaizkien galdetegia, 21 udaletara. Galdetegiari 18 udaletako 29 lagunek erantzun zioten. Urtarrilaren 24an, galdetegiaren emaitzetan sakontzeko lan jardunaldi batean parte hartzera gonbidatu ziren; bertan 30 lagunek hartu zuten parte, 16 udaletatik.

Bizikidetza anitzeko foroak eta esperientziak sustatzea (II. sustapen eremua) helburu duten 10 herrietako foroetako 95 laguni bidali zitzaizkien galdetegia. 10 udalerrietako 38 lagunek erantzun zioten galdetegiari. Urtarrilaren 31n galdetegiaren emaitzetan sakontzeko lan jardunaldian 21 lagunek hartu zuten parte.

Aztertu den programaren beste atala izan da mikroekintzak tokiko mailan. Guztira 4 udalerritan garatu dira mikroekintzak 2017an, eta udal horien balorazioa jaso da.

Bizikidetza Lantzen programaren inguruko zenbait datu

2008. urtean jada Gipuzkoako zenbait udalerrri (7 udalerrri) bakea eta bizikidetzaren inguruko programak lantzen hasi ziren (kontuan hartu behar dugu ETAREN behin betiko su-etena 2011. urteko urrian izan zela eta horrek programa horien egokitzapen bat eskatu duela). Horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako planetan parte hartzen duten udalerrien kopurua handitzen joan da urtez urte. Txosten honek aztertzen duen Bizikidetza Lantzen programa 2016. urte hasieran jarri zen abian, jada martxan ziren udal bizikidetza planei eta prozesuei garapen marko egoki eta integral bat eskaintzeko, eta halako planak udalerrri gehiagotan abian jartzen laguntzeko helburuarekin.

Txostenean udal mailan bizikidetza prozesuak eta planak aurkituriko zailtasun eta aukerak aztertu dira, eta horien garapenean eragina izan dute alderdi pertsonalek, udalerrri bakoitzeko testuinguruak eta

testuinguru orokorrak. Horrez gain, txosten hau egiterakoan parte hartu duten pertsonen ibilbideak zein prozesuen iraupena desberdinak dira. Batzuk bost urteko ibilbidea egin dute dagoeneko, eta beste batzuk, berriz, hasierako pausoak ematen ari dira. Era berean, tartean legegaldi aldaketak gertatu dira, eta gehienbat elkarrizketa politikoetan izan dute eragina.

Azkenik, azpimarratu behar da hausnarketan honetan gaur egun bizikidetza programak edo planak abian dituzten 21 udalerrietako partaide zuzenei bidali zaien arren, parte-hartzea borondatezkoa izan dela. Beraz, txosten hau ez dago laginetan oinarrituta, baina jasotako erantzunetatik eratorritako informazioa esanguratsua izan da Bizikidetza Lantzen programaren lerro nagusien eraginkortasuna eta egokitasuna aztertzeko, jakinda, testuinguruak aldatzen den neurrian, programak ere etengabeko berrazterketa beharko duela.

Bestalde, udalerrietan bizikidetza prozesuak eta planak garatze aldera beharrezkoa izaten ari den profesionalen lankidetzaren kontuan hartu da. Entitate horiek udalerrri batean eta bestean duten ezarpena eta ezagutza ere kontuan hartu izan da txosten hau lantzerakoan.

2017. urtean Gipuzkoako 23 udalerririk hartu dute parte Bizikidetza Lantzen programan; lurraldearen 477.667 biztanle biltzen dituzte herri horien guztien baturak, hau da, populazioaren % 67a.

Jarraian, hasieran aipatutako programaren sei sustapen esparruen baitan burututako ekintzen laburpena jasotzen da.

Sustapen eremuak

I. Udalan ordezkariak duten sentsibiltate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea (20 herritan 2016an, eta 23 herritan 2017an). 2017an programan parte hartu zuten 23 herri hauetatik, 21 herrietako ordezkariak bidali zitzaizkien galdetegia.

II. Bizikidetza anitzeko foroak eta esperientziak sustatzea. Bizikidetza foroak eta esperientziak sustatzea eta laguntzea sentsibiltate plurala duten pertsonen artean, eta baita ekimen edo jarduketara puntualak ere udal esparruan bizikidetzaren kontziliazioak sustatzeko (9 herritan 2016an, eta 14 herritan 2017an). 2017an zeuden 14 foroetatik, 10

foroetako ordezkariari bidali zitzaien galdetegia.

III. Giza eskubideen gizarte hezkuntzan ekimenak sustatzea. Udal esparruan giza eskubideak sustatzeko ekimenak bultzatu eta laguntzea, bereziki gizarte heziketarako ekimenak bakearen kultura eta giza eskubideen alde (9 herritan 2016an, eta 8 herritan 2017an). Besteak beste, ekintza hauek egin dira: hitzaldiak, prestakuntza saioak hezkuntza formalaren esparruan, mahai inguruak, herritarrei zuzenduriko ekimen publikoak, zine forumak, antzerki forumak, dokumentalak, tailerrak, jardunaldiak, eta abar.

IV. Udaletatik biktimen laguntza indartzea. Tokiko azterketa egitea eraildako biktimen familien egoerari eta beharrei buruz, gero ondorioak atera, eta udalak, dagozkion eskumenen barruan, zein jarduketara garatu ditzakeen aztertu dhal izateko (5 herritan 2016an, eta 4 herritan 2017an). Ekintza hauek egin dira: biktimak gogoratzeko ekitaldiak, aitortza lanak, biktima politikak definitu, planak garatu, biktimen foroak antolatu, elkarrizketa prozesuak bideratu, eta abar.

V. Udal eremuan memoriaren politika garatzea. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Memoriaren Mapari buruzko dokumentuari gomendioak egitea, eta urtero azaroaren 10ean, terrorismo, indarkeria eta giza eskubideen urraketaren biktimen Memoriaren Eguna dela eta, erakunde ekitaldia egitea, batasun eta adostasun politikoa lortuta (6 herritan 2016an, eta 8 herritan 2017an). Ekintza hauek antolatu dira: giza eskubideen urraketan txostenak garatu, memoria politika zehazteko plan estrategikoak diseinatu, memoria eguna ospatu, memoria plaza antolatu, ekitaldi publikoak, jardunaldiak, hausnarketak, eta abar.

VI. Gizarteratze prozesuetan laguntzea. Presoen gizarteratze prozesuei babesa ematea, laguntza eta asistentzia neurrien bidez, betiere udalen laguntza eskumenen barruan eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programei jarraikiz. Lan esparru honen baitan ez da ekintzarik burutu.

Ondoren, inkestak bitartez eta lan jardunaldien bitartez jasotako erantzun eta ekarpenen azterketatik eratorritako ondorioak aurkezten dira, baita, epe motzean, Bizikidetza Lantzen programa azterturiko egoera eta erronkei egokitzeko proposamen zehatzak ere.

2

TXOSTEN EXEKUTIBOA



I. SUSTAPEN ESPARRUA

Udalean ordezkaritza duten sentsibi-
litate desberdinen arteko elkarrizke-
ta eta akordioa sustatzea

Motibazio politikoko indarkeriak urte luzeetan mugatu du gure herrietako jardura politikoa. Terrorismoak eta biolentziak gure egiteko politikoa eta udaletako ordezkari politikoen erlazio pertsonala baldintzatu dituzte. Aske hitz egiteko eta jardura politiko demokratikoa garatzeko aukera mugatua izan da.

Hori dela eta, ezinbestekoa zen eta gaur egun ere ezinbestekoa da udal ordezkariak duten sentsibilitate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea, eta elkarrizketa ariketa askea eta errespetuzkoa izatea.

Gaur egun, Gipuzkoako 23 udalerritan garatzen ari diren bizikidetzaren prozesuak nagusiki¹ elkarrizketa eta elkarlan politikotik sustatzen ari dira. Horrek ikuspegi ideologiko desberdina duten pertsonen arteko elkarrizketa eskatzen du, hainbat egituratan zehaztuta. Udalerriaren arabera, elkarrizketa politiko horien iraupena luzeagoa edo laburragoa da: udalerririk batzuetan duela sei urte jarri ziren abian, eta beste batzuetan, duela urtebete. Tartean legealdi aldaketak egon dira, eta, ondorioz, pertsona aldaketak eta etenak bizi izan dira elkarrizketan.

Galdetegiari erantzun dioten pertsonen balorazioetatik eta, ondoren, lan jardunaldian parte hartu zutenen lekukotza eta hausnarketetatik Bizikidetzaren Lantzen programaren sustapen eremu honen egokitasuna ondorioztatu daiteke.

Cumplimiento de las expectativas

Bidalitako inkestari erantzun zioten pertsona gehienek nahiko argi zuten bizikidetzaren herri mailan sustatzeak, ordezkari politikoen arteko harremanak normalizatzea ekarri behar zuela eta horren bitartez herritarren aurrean eredu ematea zegokiela. Aldi berean, uste zuten beste esparruetan ez bezala, esparru honek


desberdinen arteko elkarrizketa konplexuak ahalbidetu behar zituela, eta bertan, elkarlana, elkar entzutea, elkar ulertzea, errespetua, zintotasuna, konfiantza eta bizipenak partekatzea ahalbidetuko zuen giro bat eraiki behar zela. Horri esker, nahiz eta zaila izan, beharrezkotzat jotzen zituzten adostasunak lortuko zituztela pentsatzen zuten.

Egindako ibilbidearen balorazioa

Joan diren urte eta hilabeteetan egindako ibilbideak, irudikaturiko prozesuaren bizipena ekarri du. Jorratzen ari diren bidea luzea eta zaila dela onartu arren, orokorrean, elkarrizketa politiko udal mailan bizikidetzaren sustatzeko tresna baliagarria eta beharrezkoa dela adierazi dute. Gai konplexu eta mingarriak beste giro batean lantzeko aukera eman die, eta bidean oztopoak edo blokeo egoerak bizi izan arren prozesuak mantendu izanari garrantzi handia ematen zaio.

Bizikidetzaren lantzeko, giza eskubideak, memoria, biktimak, sufrimendua eta bestelako premiak landu behar dira. Lanketa hori ekimen politikotik bultzatu behar dela onartzen den bezala, gai horien inguruan adostasunetara iristea lan zailena

Elkarrizketa politikorako mahaia tresna baliagarria al da bizikidetzaren udal mailan lantzeko?



BAI: 24
EZ: 2
ED/EE: 5

dela nabarmentzen da. Beraz, jasotako ekarpenen arabera, lanketa honek eguneroko norgehiagoka politikotik "kanpo" egon beharko lukeen berezko lan esparru bat behar duela eta epe ertaineko prozesu bat dela azpimarratzen da.

Desberdinen arteko elkarlana sustatzeko, esparru horien ezaugarri diren elementuak kontuan hartu behar dira. Elementu horien garapen maila, tokian toki eta momentuen arabera desberdina izan arren, bizikidetzari ekarpen egoki bat egiteko beharrezkotzat jotzen da kasu guztietan. Horrek, elkarrizketa prozesuak bizikidetzaren ariketa bat bezala irudikatzen dela adierazten du, etengabeko zaintza eta trebakuntza behar duen prozesua. Hona hemen prozesua ezaugarritzen dituzten elementuak eta euren garapen mailaren inguruko balorazioak:

1. Partaideen arteko errespetuzko giroa. Beste eremuetan bezala, partaideen arteko errespetua nagusitzen da. Errespetua hitz egiterakoan, elkarri entzuterakoan eta "bestea" onartzerakoan. Errespetu honek ikuspegi desberdinak eta kontrajarriak adierazteko nolabaiteko lasaitasuna ematen du, eta desadostasunak ezagututa, elkarrekin egin dezaketena irudikatzeko aukera.

2. Autonomia pertsonala. Partaideak pertsonak izan arren, ordezkatzeko dituzten alderdien sigleko pisua dute, bai hitz egiterakoan bai entzunak izaterakoan. Hori dela eta, posizionamendu politikoetatik haratago joateko zailtasunak adierazi dira, bai "bestearengana" hurbiltzerakoan edo, askoz ere nabarmenagoa, elkarrekin publikoki pauso bat emateko adostasunak lantzerakoan. Bizikidetzaren lantzea eta politika egitea nolabait desberdindu beharra azpimarratzen da, hau da, esparru horietan autonomia gehiagorekin jokatzeko, eta bizikidetzaren inguruko eztabaidak ika-mika politikotik aldentzea, baina, aldi berean, ariketa oso zaila dela onartzen da, eta parte hartzen duten pertsonen arabera, errazagoa edo zailagoa izan daitekeela aurrera egitea.

3. Zintzotasuna. Zintzotasuna aipatzen denean esparru horietan ordezkari politikoa baino pertsona ikustarazten dela aipatzen da; pertsona bere osotasunean, ibilbide, bizipen, min eta beharrekin. Baina sentimenduz hitz egiteko dugun ohitura

faltak edo horiek norbanakoengan duten pisuak blokeoak sorrarazten dituzte. Bestalde, zenbaitetan, bestea ez mintzeko pentsatzen dugun guztia ez esatera eramaten gaituela aipatzen da. Askatasunez hitz egitearen eta bestea ez mintzearen arteko kontraesana sortzen da zintzotasun mailan eraginez. Beharrezkotzat jotzen da egoera horiek kudeatzeko prestakuntza egokia.

4. Elkar ezagutza, elkar ulertzea, elkar onartzea eta enpatia lanketa. Esparru hauetan, eraikitako giroak desberdinen arteko hurbilketa eta onarpena ahalbidetzen du. Orain arte urrun izan ditugun beste errealitate batzuekiko enpatia lantzea ahalbidetzen du, baina bide hau jorratzea ez da beti erraza, partaideen errealitateaz hitz egitea dakarren neurrian; euren abiapuntuez, euren iraganeko jarrera eta irakurketez eta oraindik bizirik diren min eta beharrez. Horrez gain, erronka handia dira, orain arte izandako ikuspegi tinkoetatik mugitzea eta bakoitzaren denborak eta prozesuak errespetatzea eskatzen duten neurrian. Azkenik, emozioak kudeatzen ikasteko trebakuntza eskatu da.

5. Konfidentzialtasuna eta diskrezioa. Esparru hauetan hitz egindakoa bertan gelditzeak segurtasuna ematen du, eta elementu hori zaintzeak konfiantza zaintzea eskatzen du. Halako esparruetako kezka nabarmena ekimenaren patrimonializazioan datza, beraz, baldintza horiek hausteak denon adostasuna behar du.

6. Elkarrizketa egituratua eta kanpoko laguntza. Elkarrizketa esparruek aurrera egiteko printzipio eta helburu minimo partekatutako behar dituzte, desadostasunak kudeatzeko, adostasunetara iristeko prozesua kanpoko eragin ezkorretatik babesteko, eta konpromiso zail honi ekiteko. Horrez gain, kanpoko dinamizazioa ezinbestekoa da, adosturiko lan esparrua gogorarazteko eta elkarrizketa konplexuak bideratzeko.

7. Desadostasunak adierazteko eta kudeatzeko aukera. Desadostasunak adieraztea ez da elkarrizketaren porrota bezala irudikatzen, lorturiko giroaren lorpena baizik. Desadostasunak gainditzeko, erroak diren egia eta ikuspegietatik mugitu behar da, norberaren "erosotasun gune"

hori utzi, eta elkarrekin egin daitekeena irudikatzen arriskua hartu. Egoera horietan elkarrekiko mesfidantzak areagotzen dira, elkarrekikotasuna bilatzen da. Halakoetan, litekeena da tentsio egoerak sortzea, eta horrek eragin kaltegarriak ditu partaideen arteko konfiantzan, izan ere, hauskorra baita. Alabaina, tentsio egoerak gainditzeko gaitasunak eragin positiboa izaten du konfiantzan zein lanaren baliagarritasunean. Esparru honetan ere egokitzen jotzen da prestakuntza gatazken kudeaketan, komunikazioaren kudeaketan edo giza eskubideen eremuan.

8. Kntsentsua, elkarrekin urratsak egiteko bidea. Halako ariketa batek kntsentsuan oinarritzen ditu aurrerapausoak. Kntsentsua lortzeko aurretiko lanketa zintzoa eta sakona eskatzen du, denona izango den urratsa irudikatzea lortu arte; eta hori da, hain zuzen ere, emandako urratsa bizikidetza sustatzeko eredugarria egiten duena elkarrekin emana izatea. Lortutako adostasunak, gutxienekoak izan arren, partaideen arteko ekimenaren kapitalizazioaren inguruko errezeloak arintzeko balio izan dute eta lanean jarraitzeko motibazio iturri izan dira. Halako kasuetan, norberak eta besteak egindako indarrak eta mugitzeko adierazitako gaitasunak duten garrantzia nabarmentzen dira. Udalerrri mailan, desberdinen arteko elkarriketa eta elkarlana lortzea egingarria dela adierazten dute. Elkarrekin jorratutako bideak


egindako ekarpenari sinesgarritasuna ematen dio, eredu bilakatuz.

Honako grafiko honetan, aipaturiko zenbait aspekturen inguruko garapen mailari buruzko erantzunak jasotzen dira. Zintzotasunez hitz egiteak eta elkarrekiko errespetuak, elkarrenganako ezagutza eta hurbilketa ahalbidetzen duten neurrian, gai konplexuen inguruko desadostasunak adierazteko aukera ematen dute. Benetako ariketa bat diren neurrian adostasunetara iristea ere posible dela ikusten da, nahiz eta erraza den konplexutasuna kudeatzeak sorrarazten dituen zailtasunak agerian gelditzea. Azkenik, elkarrekiko konfiantza etengabe zaindu beharra nabarmentzen dute.

Bestalde, bizikidetza udal mailan lantzerakoan, herri mailako zein makro mailako bitza politikaren eragina nabarmena da udalerrietako elkarriketa prozesuetan, eta erabat barneratuta dago gaia norgehiagoka politikotik kanpo utzi behar dela..

1. Testuinguruaren pisua eta testuinguruan eragiteko gaitasuna. Esparru hauek lantzen ari diren bezala, badira makro mailan alderdi desberdinen arteko beste elkarriketa eremu batzuk. Eremu horietan ere bizikidetzarekin zerikusia duten gaietan elkarlanean aritzea eta adostasunetara iristea oso lagungarria da udalerrri mailan urratsak egiteko. Bestalde, udalerrri mailako gertakariekin zein horien

Elkarriketa politikorako mahaia abian jarri zenetik, zein da, zure ustez, alderdi hauetan izan duen garapena? (1 "gauzak ez dira batere aldatu" eta 5 "aldaketa handia izan da")



aurrian alderdiek izandako jarrerek ere eragina dute elkarrizketa esparru horietan. Bizikidetza prozesu politikoek udalerrian eragin zabalagoa izateko erronka azpimarratzen da.

2. Udaleko harreman dinamikak. Nabarmena da udaletako eguneroko dinamikak eragin handia duela elkarrizketa politikoan, eta eragin hori txikiagoa dela kontrako norabidean. Horrek ez dio batere mesederik egiten partaideen arteko konfiantzari, izan ere, pertsona berdinak dira esparru politiko desberdinetan mugitzen direnak. Ordezkaritza politikoaren arteko harremanak hobetu ahala, horrek eguneroko bizitza politikoan isla handirik ez izateak baliagarritasun eta zintzotasun faltaren beldurrak areagotzen ditu. Beraz, elkarrizketa prozesuen zainzak eta esparru desberdinetan garatzen diren dinamikien arteko nolabaiteko armonizazioa lortzeko indarra hartzen du.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak I. sustapen esparruari dagokionez hau dio: Udalean ordezkariak duten sentsibilitate desberdinen arteko elkarrizketa eta akordioa sustatzea.

Orain arte jasotako guztia hausnarketa prozesuan parte hartu duten pertsonen ekarpenetatik eratorritako hausnarketak izan dira. Hona hemen, hausnarketa horiek eta sustapen esparruaren deskribapena kontuan harturik eratorritako ondorio nagusiak:

- Egindako hausnarketa prozesuak agerian utzi du elkarrizketa eta akordioa sustatzea prozesu izaera duen bide luze eta zaila dela, baina hala ere, elkarrizketa politikoa bizikidetza udal mailan sustatzeko tresna baliagarria eta beharrezkoa dela.
- Bizikidetza udal mailan eraikitze aldera sustatu eta bultzatu beharreko ekimenek ordezkari politikoaren elkarlanari eta akordioari zentzu esanguratsua ematen diote. Akordioa lortzeko egindako bideak indarra hartzen du eta bizikidetza eredu bilakatzen da.

- Elkarrizketa prozesu hauen baitan sorturiko zailtasunak edo testuingurutik jaso ditzaketen eragin ezkorrek blokeo eta krisi egoerak eragin dituzte prozesua moteldu edo etetera iritsi arte. Baina blokeo egoera horiek gainditu izanak eta lanean jarraitzeak esparru hauen baliagarritasuna eta prozesu izaera agerian utzi dute.

- Elkarrizketa eta elkarlana sustatze aldera egindako ibilbidean, prozesu hauek ezaugarritzen dituzten elementuak identifikatu dira: elkarrekiko errespetua, zintzotasuna, siglen atzean dagoen pertsonaren garrantzia, diskrezioa, konfidentzialtasuna, elkar ezagutza, elkar ulertzea, elkar onartzea, enpatia eta kontsentsua besteak beste.

- Halako prozesuek norgehiagoka politikotik babestuko dituen lan esparru partekatuek eta kanpoko dinamizazioa behar dituzte.

- Elkarrizketa prozesu hauek beste esparrutan ez bezala, gai konplexu eta mingarriak lantzeko aukera ematen dute. Desadostasunak agerian uzteko aukera ematen dute, hortik abiatuta partekatu daitekeena adoste aldera.

- Konpromiso pertsonal handia eskatzen dute, prozesu horietan emozioak, minak eta beharrak tokia duten neurrian. Ordezkaritza politikoak herritar diren neurrian gertatutakoak maila pertsonalean ere eragiten dielako.

- Elkarrizketa prozesu hauetan garatzen diren harreman eta komunikazio dinamikak beste esparruetara eraman nahi izateak ere sustapen esparru honen egokitasuna adierazten du.

- Sustapen esparru honek garapena behar duela adierazi da, egindako trebakuntza eta formazio eskaeren bitartez. Aipaturiko formazioa eta trebakuntza zehatz batzuk: gatazken kudeaketan, emozioen kudeaketan, komunikazioaren kudeaketan edo giza eskubideen eremuan. Hau da, kultura politiko demokratikoan inbertitu beharra ondorioztatzen da.

- Antzeko prozesuetan murgilduak dauden udalerrietako ordezkarien arteko topaketak eta esperientzi trukaketak, sustapen esparru honen garapenean eraginkorrak izan daitezke.
- Bizikidetza Lantzen programan jasotako III., IV., V. eta VI. sustapen esparruak landu eta garatzeko lan esparru egokiena eta eraginkorrena ordezkari politikoen arteko elkarrizketa eremua da.
- Herritarren Foroak udalerriko bizikidetza eragile bezala ikusten dira, desberdinen arteko elkarrizketa esparru bat diren neurrian. Beraz, babesa eskaini arren euren jardunaren autonomia errespetatzen da.

II. SUSTAPEN ESPARRUA

**Bizikidetza anitzeko foroak eta
esperientzia sustatzea**

Herritar foroek abiapuntu eta garapen desberdina izan dute. Herritarren foroen batz besteko iraupena bi urtekoa izan da: batzuk urte bat, baten bat hasi berria da, beste batek bere ibilbidea bukatu du eta beste batzuk hiru urte baino gehiago daramate lanean. Horrez gain, foro horietatik zazpi ezagutzera eman dira eta beste hiruk diskretuki jarraitzen dute lanean.

Galdetegia erantzun duten pertsonen balorazioetatik eta ondoren, lan jardunaldian parte hartu zutenen lekukotza eta hausnarketetatik Bizikidetza Lantzen programaren II. Sustapen eremua, bizikidetza anitzeko foroak eta esperientziak sustatzea bide onetik doala eratorri daiteke.

Zentzu horretan, honako alderdi hauek azpimarratu daitezke:

Espektatiben asebetetzea

Foroetako kide gehienek adierazitako motibazioetatik, euren herriko bizikidetza arazoekiko sentsibiltate handia dutela ondorioztatu daiteke. Euren parte-hartzearen bitartez, herriko bizikidetzari ekarpen bat egiteko borondateak edo ardurak bultzatu ditu foroetan parte hartzera. Horrela, galdetegiari erantzun diotenen % 69k foroan bizi

duten prozesuak hasiera batean zituzten espektatibekin bat egiten duela erantzun dute. Hau da, esperientzia bera positibotzat jotzen dute. Foroko partaideak bizitzen ari diren prozesuek espektatiba orokorrekin bat egiten dute, baina kasu gehienetan aurreikusi ezin zituzten lorpen eta zailtasunak aurkitu dituztela ere adierazi dute.

Erantzunetatik ondoriozta daiteke foroen prozesuak egiazkoak direla eta desberdinen arteko bizikidetzak berarekin dakartzan zailtasunetatik ateratzeko eta sakontasunera iristeko gai izaten ari direla; izan ere, elkarrizketa prozesuek bizi duten sakontasun maila azpimarratzen dute.


Egindako ibilbideak kasu gehienetan hasierako espektatibak bete eta gainditu ditu, imajina ezina zen bide bat eraikitze gaitasuna adierazi duelako. Zenbait pertsonak aipatu eta azpimarratu dute elkarrizketa tresna baliagarria dela euren arteko ikuspegi kontraerriak eta gatazkak kudeatzeko. Zentzu horretan azpimarratzen dute, momentuz adostasunetarairisteazailadenarren, lagungarria izan dela partaideen arteko harremanak eta begiradak aldatzeko, pertsonen arteko konfiantzak imajina ezina zen moduan ehunduz, eta hasiera batean irudikatzen ez zen bidea helburu bilakatzen joan dela.

Egindako ibilbidearen balorazioa

Taldearen barne lanari begira. Oro har, sentsibiltate gehienak ordezkatuta egotea lortu izana. Konfiantzako giro bat eraikitze gaitasuna izan diren heinean, bizipenak konpartitzeko esparrua dela eta horien inguruan sakondu eta enpatizatze aukera eskaintzen duela adierazi dute. Zentzu horretan, gai zailak eta konplexuak lantzeko esparru egokia da: kezka, beldurrak, zalantza... errespetuz konpartitzeko aukera ematen baitu. Honi lotuta agertzen da elkarri entzuten ikasteak duen balioa, eta norbanakoari ere korapiloak askatzeko eskaintzen dion aukera.

Bide horretan, taldeen aniztasuna lorpen eta erronka bat bezala ikusten dute. Aniztasuna asko azpimarratzen duten gaia da, eta ezinbestekotzat jotzen dute aniztasun hori bermatu eta zabaltzea aurrera begira egin behar duten lanean. Aniztasunari dagokionez, hizkuntzen kudeaketaren inguruan beti adostasunik ez izateak ekartzen dituen arazoak ere adierazi dituzte, izan ere, tarteka kudeaketa honek kolokan jartzen baitu aniztasuna.

Foroan bizitzen ari zaren edo bizi duzun prozesua, hasiera batean zenituen espektatibekin bat egiten ari da?



BAI: 27
EZ: 6
ED/EE: 6

Gai zehatzei dagokionez, memorian eta transmisioan kokatzen dute bereziki egin dezaketen ekarpena, izan ere beraiek gai hori lantzen eta jorratzen ari direlako foro batean baino gehiagotan. Zentzu horretan, aurrera begira gazteengana heltzeko beharra mahaigaineratu dute. Memoria, transmisioa eta etorkizuneko bizikidetzaren eraikuntza prozesuan gazteak erakarri eta inplikatu beharra.

Taldeak egindako lanketak herri mailan izan dezakeen eraginari begira. Taldeak desberdinen arteko elkarrizketa ahalbidetzen duen heinean, elkarrekin adostasunetara heltzeko gai izateak duen balioa. Hau da, arazoei irtenbide adostu bat aurkitzeko gaitasunak duen balorea. Zentzu horretan, adostasun hauek herrira begira antolatutako ekintza publikoak bihurtzen direnean, horrek duen garrantzi edo balore pedagogiko handia: "desberdin pentsatzen dugunok eta orain arte bizkarra emanda edo norgehiagoka ibilitakoak, elkarrekin adostasunetara heltzeko gai gara" mezua hedatzen baitu.

Foroak bizitakoak kanporatzeko beharra partekatzen da, herriari ekarpen bat egitea, ariketa pedagogiko bat bezala. Foroak herriari egiten dion ekarpenari dagokionez, hiru mailatako ekarpenak nagusitzen dira erantzun eta hausnarketa partekatuetan: (1) ikuspegi desberdineko pertsonen arteko errespetuzko elkarrizketa posible eta erreal dela


erakustea, hau da, egindako ibilbidearen berri ematea, (2) bide zaila izan arren, egindako bideak aurrera egin ahal izateko "bestea" beharrezkoa dela adieraztea, eta (3) bizikidetzaren aldeko diskurtsoa zabaltzea.

Kanporako lan honetan, badira kezka sortzen duten eta landu behar diren zenbait alderdi ere: taldea herrian publikoki agertzeak sortzen dizkien kezkak gainditzea, eta kanpo komunikazioa lantzea antolatzen dituzten ekimenen eragina emankorra izan dadin.


Gai konplexuen lanketan aurrera egiten ari direla (nahiz eta honek oraindik kanpoan islarik ez izan). Bereziki, oroimenaren inguruan egindako lanketan. Horiek oso positibotzat jotzen dituzte, nola landu diskurtso bateratu eta positibo bat errepika ez dadin, eta norberaren esperientzia eta bizipenak ukatu gabe.

Edonola ere, hau ez da egun batetik bestera lortu, eta prozesua eta denbora aldagaiek bere garrantzia dute.

Foroetako parte hartzaileek erantzun duten galdetegieta oinarrituta egindako honako bi grafiko hauetan ikus dezakegu espazio hauek duten indar eraldatzaileari dagokionez egiten diren barne urratsek badutela logika bat.



Foroak orain arte egindako ibilbidean zein izan da alderdi hauen garapen maila? (1 "gauzak ez dira aldatu" eta 5 "zeharo aldatu dira")



Jarrerekin zerikusia dutenek garapen eta lortze maila handiagoa dute kudeaketarekin edo erabakiak hartzearekin zerikusia dutenek baino; hori dela eta, garrantzia handia du denbora eta prozesuak errespetatzeak.

Foroek ordezkari politikoekin duten harremanaren autonomia garrantzitsutzat jotzen dute espazio hauetan parte hartzen dutenek, bi espazioen arteko desberdintasuna eta autonomia nabarmenduz, injerentziarako lekuri utzi gabe. Baina, behin printzipio hori garbi utzita, begi onez ikusten dute koordinazio espazio bat ahalbidetzea bi espazioen arteko elkarrizketa beharrezkoa denean. Horrek guztiak ahalbidetu dituen giltzarriak bi alorretan bereizi daitezke:

Alde batetik, parte hartzaile bakoitzak ekartzen duena: parte hartzaileek erakusten duten borondatea, gogoia, ikasteko grina eta konpromisoa dira aurrera egitea ahalbidetu duten giltzarrietako batzuk. Horrez gain, aipatzekoa da jendearen jarrera parte hartzailea eta zintzoa; jarrera eta borondate horiek enpatia lantzea ekarri die, eta enpatia aurrera egiteko ezinbesteko giltzarria dela nabarmentzen dute.

Eta bestetik, prozesuaren baitan txertatu diren kanpoko zenbait elementu: taldeak dinamizatzen dituzten erraztaileak, eta herrietan egin edo antolatutako diren zenbait ekimen.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak II. sustapen esparruari dagokionez hau dio: Bizikidetza foroak eta esperientziak sustatzea eta laguntzea sentsibilitate plurala duten pertsonen artean, baita ekimen edo jarduketa puntualak udal esparruan bizikidetzaren kontziliazioak sustatzeko.

Abiatutako hausnarketa eta ebaluazio prozesu honetatik honako ondorio hauek atera daitezke:

- Programak idatzitakoa erabat betetzen dute elkarrizketa espazio hauek.
- Bertan parte hartzen duten pertsonen maila handi batean aseta ikusten dituzte espazio horien espektatibak.
- Gai konplexuak lantzeko eta bizikidetzan aurrera pausuak emateko tresna eraginkorra dira.
- Orain arteko prozesuak erakusten du taldeek egiten duten lana -desberdinen arteko elkarlanean, errespetuan, enpatian, desadostasunen kudeaketan, elkar ezagutza eta aitortza-baliagarria dela aurrera egiteko eta sakontzeko.

- Nahiz eta gorabeherak eta krisiak izan, taldeek lanean jarraitzen dute.
- Prozesuaren izaera, eta denboraren aldagaia. Taldeek markatzen dute beraien agenda eta ibilbidea, horregatik berebiziko garrantzia du prozesuaren ikuspegiak; urratsez urrats egiten da bidea, eta horretarako ezinbestekoa da beharrezkoa den denbora hartzea, erritmoa bortxatu gabe.
- Herritar foroen arteko komunikazioa elkartrukatzeko bide bat antolatzea interesgarria izan daiteke. Foroek antolatzen dituzten ekimenen berri izateko bitartekoren bat gaitu. Foroetan parte hartzen duten pertsonak elkarrekin esperientziak partekatzeko espazioen bat sortu.
- Prestakuntza eskaintza. Foroetako kideek gai sakonetan aurrera egin ahala, gai horien ezagutzan baliagarria gertatuko zaien prestakuntza jasotzea egokia izan daiteke bertako partaideentzat.
- Esperientzia horietako jardunbide egokiak identifikatu eta jaso. Elkarrizketa prozesu horietan parte hartzen dutenek esperientzia horien praktikak jasotzea, besteek ere horietatik ikas dezaten eta beste eremu batzuetan ere aplikatu daitezten.

III. SUSTAPEN ESPARRUA

**Giza eskubideen gizarte
hezkuntzan ekimenak
sustatzea**

Sustapen eremu honen baitan hainbat ekimen garatu dira: eskolekin lanketa, zinegotziei zuzenduriko prestakuntza, eta herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio eta hausnarketa. Eskolekin egindako lanketaren eremuan, irakasleei eta ikasleei zuzenduriko giza eskubideen inguruko prestakuntza, antzerki foruma, eta bideo forumak egin dira.

Herritarrei zuzenduriko ekimen motak honako hauek izan dira: "Eta hik zer" antzerki foruma, hitzaldi eta mahai inguruak eta zine-forumak. Kasu batzuetan biktimen testigantzak ere izan dira.

Halako ekimenak burutu ez dituzten udalerrri gehienak prozesuaren hasieran daude, beraz, urrats hauek emateko oraindik mahai politikoan beste gai batzuk landu behar dituztela adierazten dute. Beste udalerrri bateko ordezkariak aldiz, beste lanketa batzuei lehentasuna eman dietela adierazten dute, baina esparru hau ere lantzeko asmoa dutela nabarmentzen dute.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak III. sustapen esparruari dagokionez hau dio: "Udal esparruan giza eskubideak sustatzeko ekimenak bultzatu eta laguntzea, bereziki gizarte heziketarako ekimenak bakearen kultura eta giza eskubideen alde.

Orain arte jasotako guztia hausnarketa prozesuan parte hartu duten pertsonen ekarpenetatik eratorritako hausnarketak izan dira. Hona hemen, hausnarketa hauek eta sustapen esparruaren deskribapena kontutan harturik eratorritako ondorio nagusiak:

- Sustapen esparru honek egungo egoeran zentzua izaten jarraitzen du.
- Sustapen esparru honen garapena memoriaren inguruan aurreratzen ari diren lanketekin lotu izan da. Giza eskubideen eta bakearen kultura udalerrrian gertatutakoaren transmisioarekin lotzen da.

IV. SUSTAPEN ESPARRUA

Udaletatik biktimen laguntza
indartzea

Elkartutako udalerrietatik hamarretan biktimekin edo biktimei zuzenduriko hainbat ekimen garatu izan dira. Kasu batzuetan, herriko zenbait biktimekin bilerak izan dira; euren egoera ezagutzeko, hurbiltasuna adierazteko edo ekitaldi baten harira. Beste kasu batzuetan, biktimak gogorarazteko lore eskaintzak egin izan dira. Biktimen beharrak modu zuzenean ezagutzeko egindako lanketa aitortzaren eremuan emandako urratsetarako ezinbestekoa izan dela aipatu da. Kasu guztietan egindako hurbilketak modu diskretuan egin izan dira eta kasu gehienetan lanketa handiagoa eskatzen duen lan eremu bat dela onartzen dute.

Era berean, zenbait udalerritan biktimek udalarekiko dituzten mesfidantzak eta oraindik oso bizirik diren minek sorrarazten dituzten zailtasunak aipatu dira.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak IV. sustapen esparruari dagokionez hau dio: "Tokiko azterketa egitea eraildako biktimen familien egoerari eta beharrei buruz, gero ondorioak atera eta udalak, dagozkion eskumenen barruan, zein jarduketa garatu ditzakeen aztertu ahal izateko.

Orain arte jasotako guztia hausnarketa prozesuan parte hartu duten pertsonen ekarpenetatik eratorritako hausnarketak izan dira. Hona hemen,

hausnarketa horiek eta sustapen esparruaren deskribapena kontutan harturik eratorritako ondorio nagusiak:

- Sustapen esparru honek "tokiko azterketa egitea eraildako biktimen familien egoerari eta beharrei buruz" aipatzen duen neurrian, hurbilketa hori egiteko, alde aurretik biktimak zeintzuk diren argitu beharra legoke. Hori argitze aldera, udalerriko biktima guztien memoria berreskuratu dezakeen lanketa egitea modu egokia izan daiteke. Beraz, V. Sustapen esparruaren baitan jasota egon daiteke.

- Biktimak izendatzerakoan eraildako pertsonak soilik jasotzen diren hala bestelako urraketak pairatu dituzten pertsonak ere sartu diren argitu behar da. Irizpidea udalerrri mailan ordezkari politikoek adostu ditzaketen memoria politikek, memoria lanketek edo aitortza irizpideek eman dezakete.

- Eusko Jaurlaritzak udalerrietako biktimak identifikatzeko egindako dokumentua oinarri hartuta, eta Eusko Jaurlaritzako txostenak lagunduta.

V. SUSTAPEN ESPARRUA

Udal eremuan memoriaren
politika garatzea

Lan eremu hau oso modu desberdinean ulertzen da. Orokorrean azaroaren 10arekin lotzen da, eta egun horretan minimoetara iristeko egiten dituzten ahaleginak aipatzen dira: kontzentrazio bateratua, lore-eskaintza edo testu bateratu minimo batekin kaleratzea. Badira egun horri loturiko ekitaldiak antolatzen dituzten udalak ere, baina aipatzen da orokorrean herritar gutxi hurbiltzea lortzen dutela eta ordezkari politikoen artean tentsio handiak sortarazten dituela. Tentsioak probetxu politikoa norik aterako duen errezeloa edo egiten denarekin hanka sartzeko beldurra eragiten duela aipatzen da.

Orokorrean memoria politika egoki bat egiteko beharra adierazten da, baina horrek kontsentsua eta lan sakonagoa behar duela partekatzen da. Memoria horrek zer jasoko duen argitu behar dela eta biktimekin lan egin behar dela adierazten da. Dagoeneko "Memoria partekatu baterantz" txostena egin duten udaletan, egindako lanketa profesionala bide hori jorratzeko ezinbesteko izan dela aipatu dute.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak V. sustapen esparruari dagokionez hau dio: "Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Memoriaren Mapari buruzko dokumentuari gomendioak egitea, eta urtero azaroaren 10ean terrorismo,

indarkeria eta giza eskubideen urraketaren biktimen Memoriaren Eguna dela eta erakunde ekitaldia egitea, batasun eta adostasun politikoarekin.

Orain arte jasotako guztia hausnarketa prozesuan parte hartu duten pertsonen ekarpenetatik eratorritako hausnarketak izan dira. Hona hemen hausnarketa horiek eta sustapen esparruaren deskribapena kontutan harturik eratorritako ondorio nagusiak:

- Sustapen esparru hau modu integralago batean lantzeko beharra ikusten da. Udalerriko biktimek jasandakoaren egia azaleratzea, hurbilketa lanak egitea, eta aitortza eta oroitzapena bideratzea.
- Zenbait udalerritan Eusko Jaurlaritzak aurkezturiko Memoriaren mapa osatu da eta udalerrri mailan egindako memoria lanketa abiapuntu bezala hartu izan da biktimen aitortzaren esparruan urratsak ematerakoan.
- Sustapen esparru honek bereziki ordezkari politiko guztien adostasuna behar duela nabarmentzen da.
- Memoriaren lanketa azaroaren 10ean ez fokalizatzea eta udalerrri bakoitzaren erritmoak eta prozesuak errespetatzea eskatzen dute.

VI. SUSTAPEN ESPARRUA

Gizarteratze prozesuetan
laguntzea

Sustapen esparru hau ez da inongo udalerritan landu programan jasota dagoen bezala.

Orokorrean gai garrantzitsua dela onartzen da eta jada nola kudeatu beharko den pentsatzen hasteko garaia dela. Bestalde, gai hau lantzeak herri mailan eta zenbait esparru ideologikotan eragin oso positiboa izango lukeela onartzen da, baina aldi berean ez da oso argi ikusten lan esparru honen eskumena udalari edo beste erakunde batzuei dagokien, bederen politika orokorrak abian jartzea.

Hala ere, gaiak elkarrizketa esparruetan presentzia handia du eta bizikidetza eraikitze aldera kudeatu beharreko gaia dela adierazten da.

Ondorio nagusiak

Bizikidetza Lantzen programak VI. sustapen esparruari dagokionez hau dio: "presoen gizarteratze prozesuei babesa ematea, laguntza eta asistentzia neurrien bidez, betiere udalen laguntza eskumenen barruan eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programei jarraikiz."

Orain arte jasotako guztia hausnarketa prozesuan parte hartu duten pertsonen ekarpenetatik eratorritako hausnarketak izan dira. Hona hemen hausnarketa horiek eta sustapen esparruaren deskribapena kontutan harturik eratorritako ondorio nagusiak:

- Sustapen esparru hau ez da inongo udalerritan landu programan jasota dagoen bezala.
- Gaia garrantzitsua dela adierazten da, baina horren kudeaketa nork eta nola egin behar duen ez dago argi.
- Iritsiko den gai bat dela onartzen da, baina udalerrri bakoitzeko prozesuek euren lehentasunak finkatzen dituzte eta hori ere kontsentsuz landu beharko denez, denbora beharko du.

VII.

Bestelako lan esparruak

Gazteengana nola iritsi? Nola sustatu euren parte-hartzea antolatzen diren ekimenetan? Nola helarazi gertatutakoa berriz ere errepikatu ez dadin? Kezka horiek askotan errepikatu izan dira gai desberdinen harira.

Garapen proposamena

- Gazteak eta transmisioa gaiak Memoriaren sustapen esparruarekin zerikusia du neurri handi batean, beraz, sustapen horren baitan jasota egon daiteke. beti ere gazteentzako behar bezala landuta.
- EGKren lana ezagutu eta esparru honetan egin dezaketek ekarpena aztertu.



